



2020
2024

EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZA

LEGEGINTZALDIKO MEMORIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES



**LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA ETA
GARRAIOETAKO SAILA**
DEPARTAMENTO DE
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
VIVIENDA Y TRANSPORTES

Donostia kalea 1, 01010
Vitoria-Gasteiz - Araba

Diseinua eta maketazioa:
Diagonal 360°

Honek idatzi eta itzulia:
Etxebizitza Sailburuordetza



LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES



Aurkibidea

01

AURKEZPENA

4

06

HERRITARRENTZAKO
ZERBITZU PUBLIKOA

33

02

SAILAREN
EGITURA

6

07

BERRIKUNTZA
ETXE BIZITZAN

38

03

PLANGINTZA
ETA ARAUZKO
GARAPENA

9

08

GURE ZIFRAK

46

04

ALOKAIRUA
ARRAZOIZKO
PREZIOAN SUSTATZEA

19

05


ERAIKINEN ETA
ETXE BIZITZEN PARKEA
BIRGAITZEKO ESTRATEGIA

29





01 AURKEZPENA





Sailburuaren gutuna



Iñaki Arriola

Lurralde Plangintza,
Etxebizitza eta
Garraioetako Sailburua

Legealdi batetik bestera igarotzeak aukera ematen du atzera begiratu eta hausnarketari ekiteko EAEko etxebizitza-politikaren gainean. Azterketa hori da, gainera, erantzukizun-ariketa bat. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailean atseginez onartzen dugu ariketa hori, eta memoria honen orrialdeetan islatzen dugu.

Azkenaldian, etxebizitzak garrantzi publiko berezia hartu du, eta gaur egungo gizartearen erronka handienetako bat bihurtu da. Erronka hori pertsona guztioi dagokigu, banaka zein taldeka, eta haren aurrean, EAEk berriz ere erakutsi du bere konpromisoa, Etxebizitzaren aldeko II. Itun Soziala osatuz. Akordio handi bat da, 91 erakunde sozial publiko eta pribatuk sinatutakoa; akordio horrek gure ibilbide-orria zehazten du, eta epe ertain eta luzeko egonkortasuna eta lankidetzaren bermatzen ditu.

Iragan den legealdiak balio izan du, halaber, EAEko herritarren etxebizitzarako eskubide subjektiboa sendotzeko. Balio horrek gizarte gisa bereizten gaitu, eta balio hori da, era berean, gure ekintza politiko guztiaren ardatza, aurrera egin dezagun, hain zuzen, etxebizitzaren bizigarritasuna hobetzeko eta alokairu babestuko araubideko etxebizitza berriak eraikitzeko bidean, eta alokairu eskuragarriko espezialitate berri bat bultzatzeko, eragile sustatzaile pribatuekin lankidetzan. Eta horrez gain, Etxebizitza Eskubidearen aldeko Espainiako Legea onartzearen ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza-merkatu tentsionatuaren eremuak izendatzea ahalbidetzen duten tresna berriak gehitzeko. Etxebizitza arloan oinarriak finkatu eta protokoloak ezarri ditugu, EAEko udalerriek, araudia betez, etxebizitzaren eskasia eta garestitasuna arintzen saiatzeko talka-neurriak garatu nahi badituzte, halako tresnak errazago ezar ditzaten.

Ezin dugu ahaztu, ezta ere, agintaldi honen hasieran izan genituen zailtasunak, COVIDaren krisi sanitarioa zein haren ondorio sozial eta ekonomiko izugarriak zirela kausa; izan ere, haien ondorioz aparteko neurriak hartu behar izan genituen, hala nola zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen etxebizitza libreetan alokairua ordaintzeko laguntzak eta babestutako parke publikoen alokairua ordaintzetik salbuestea. Aparteko aipamena merezi dute Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan Etxebizitzaren arloari esleitutako birgaitzeko Next Funtsek. EAEk aukera bikain hori aprobetxatzen jakin du, eta jasotako Europako baliabide guztiak gauzatzen, eta esleitutako funts guztiak gauzatu ditu. Laguntzok erabiltzen ari dira gure etxebizitza-parkearen zati handi bat, Europako zaharrenetako bat, energia-eraginkortasuneko irizpideekin birgaitzeko.

Jarrai nezake urteotan garatutako ekimenak zehazten, baina egokiagoa da, zalantzarik gabe, bakoitzak bere kabuz ebalua dezan Sailak egindako lana, dokumentu honetan bildutako datuen eta zifren bidez. Informazioaren eta gardentasunaren aldeko apustua da, eta zure interesekoa izatea espero dugu.



02 SAILAREN EGITURA



Etxebizitza Sailburuordetza, XII. Legegintzaldian, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren barruan egon da, Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetzarekin eta Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetzarekin batera.

Etxebizitza Sailburuordetzak bi zuzendaritza ditu: Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza, eta Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen

Zuzendaritza. Bi zuzendaritez gain, Sailburuordetzak Alokabide eta Visesa sozietate publikoak eta hiru lurralde-ordezkaritzak ditu, ezinbesteko tresnak etxebizitza-politikak gauzatzeko.

Erakundearen 400 pertsonak baino gehiagok elkarrekin lan egiten dute helburu komun baten alde.



Organigrama eta funtzioak



Erakundeak **400 pertsonak** baino gehiagok elkarrekin lan egiten dute helburu komun baten alde.



Eusko Jaurlearitzako Etxebizitza Sailburuordetzak XII. legegaldiari ekin zion asmo sendo honekin: esleitutako xedea betetzea eta ezarritako helburuak lortzea; hain zuzen ere, 2021-2023ko Etxebizitzaren Gida Planean zein 2022-2036ko Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean ezarritako helburuak.

Legaldi honetan hasitako ekintzek jarraitzeko asmoa dute, Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialean hartutako konpromisoei esker. Arrazoizko alokairua bultzatzea eta etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetzea –birgaitze integrala eta Europako funtsen ahalik eta aprobetxamendu handiena sustatuz– dira legegaldi honetan garatutako gainerako jarduketan erronka nagusiak.

MI SIOA

Etxebizitza Sailburuordetzaren xedea hauex da: erantzun integrala bermatzea etxebizitza duin eta egokia behar duten pertsonei, eta handitzea, horretarako, arrazoizko alokairura eta bizitegi-parkearen bizigarritasun- eta jasangarritasun-ezaugarriak hobetzer a bideratutako baliabideen eskaintza.

Etxebizitza Sailburuordetzaren ikuspegia zera da: 2024a iristen denerako, prestazioen sistema ezarrita eta finkatuta egotea, Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa bermatzeko, eta horrekin batera, alokairu eskuragarriko etxebizitza-parkearen hazkundea eta kohesio soziala erraztea, bizitegi-parke publiko eta pribatua birgaitu dadin bultzatzea, eta Europako funtsak optimizatzea, birgaitzeko politiken aldaketa estrategikoaren bidez, honako alderdi hauetan oinarrituta: eraikinen kalitatea eta bizigarritasuna, birgaitze integrala, irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna, klima-inpaktuaren murrizketa eta berrikuntza.

IKUS PE GIA





03 PLANGINTZA ETA ARAUZKO GARAPENA





Etxebizitza Sailburuordetzak garatutako etxebizitza-politikak ezartzeak askotariko jarduerak hartzen ditu barne, eta jarduerok plangintza egokia eta arauzko garapen garrantzitsua behar dituzte.

Etxebizitzaren ekainaren 18ko **3/2015 Legea** onartzeak markatu ditu azken urteotan ezartzen ari diren etxebizitza-politikak. Lege horrek araudi ugari garatzea dakar, eta haietako asko garatu egin dira XII. legealdian.

Legeak berak adierazten du plangintza- eta programazio-tresnak zein izan behar diren, eta **Etxebizitzaren Gida Plana** jotzen du etxebizitzaren arloko politika publikoak bideratu eta orientatzeko tresnatzat.

XII. Legealdiko **2020-2024 Gobernu Programan** 3 konpromiso sartu ziren, eta Etxebizitza Sailburuordetzak lortu beharreko 29 ekimenetan garatzen dira. Urteotan, etxebizitza-politiken ildo nagusiak Gobernu Programaren helburuak gauzatzen saiatu dira.

Jarduketaren funts nagusia izan da eredu egonkor eta koherente baten aldeko apustua areagotzea, epe luzerako erronkak garatzeaz gain, haietara egokitu ere egiten den erakunde- eta programa-esparrua finkatzeko, EAEko etxebizitza-politikaren nortasun-ezaugarriak sendotu eta indartuta.

2020-2024ko GOBERNU-PROGRAMA

ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZAK LORTU BEHARREKO KONPROMISOAK

37. konpromisoa	38. konpromisoa	39. konpromisoa
<p>15 urterako Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala lortzea eta legealdiko Etxebizitzaren Gida Plan berria onestea.</p>	<p>Gazteek etxebizitza eskuratzeko ekintza espezifikoak.</p>	<p>Birgaitzea, hiri-berroneratzea eta etxebizitzaberrikuntza sustatzea, irisgarritasuna, energia-efizientzia eta eraikuntza jasangarria hobetuz.</p>


Konpromiso horiek 2030 Agendako **Garapen Jasangarrirako hiru Helburu** (GJH) lortzen laguntzen dute:



Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta 91 erakunde instituzional, sozial eta enpresarialek 2022-2036ko Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala sinatu zuten 2022ko azaroan.

Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala izan da XII. legealdi honetan adostasun-maila handia lortu duen lan-prozesu baten amaiera. EAEn etxebizitzarekin zerikusia duten eragile nagusiek konpromisoa hartu dute etxebizitzarako eskubidearen eraginkortasuna bizkortzeko helburu komun eta partekatuan, eta epe luzeko helburuak eta lan-ildoak ezarri dituzte EAEko gizarte-ereduaren zutabe nagusietako bat garatzeko



HELBURU KUANTITATIBOAK





Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala

2022-2036 ALDIAN GARATU BEHARREKO LEHENTASUNEZKO 6 JARDUN-ILDO:

ERAGIN ZUZENEKO ILDOAK:

- 1** **INBERTSIO HANDIAGOA ETXEBIZITZAN,**
FISKALITATE SUSTATZAILEAN OINARRITUTA
- 2** ETXEBIZITZA-POLITIKAREN **DIMENTSIO SOZIALEAN**
SAKONTZEN JARRAITZEA
- 3** ETXEBIZITZA UDAL-AGENDA ESTRATEGIKOAN
SARTZEA OROKORTZEA
- 4** **ERAIKUNTZAREN SEKTORE ERAKARGARRIA,**
LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA OSATZEA

ZEHARKAKO LAGUNTZA-ILDOAK:


- 1** **DATUEN ADIMENA ETA UDALAREN**
EBALUAZIO AURRERATU ESTRATEGIKOA
- 2** **INPLIKAZIO ETA LANKIDETZA**
PUBLIKO-PRIBATU-SOZIALA





2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana

2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana izan da legealdian EAEko etxebizitza-politika bultzatzeko eta 2015eko Etxebizitza Legea praktikan jartzeko bide-orria. Bertan, etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzen da; babes sozial horrek ekarri du familia horiek lehenestea alokairuko etxebizitzak esleitzeko orduan, horixe izanik Legean eskubide subjektiboari erantzuteko ezarritako tresna nagusia.



HAUEK DIRA PLANAREN EZAUGARRI NAGUSIAK:

- Ekimen publiko eta pribatuko alokairu babestuko sustapenaren aldeko apustua indartzea
- Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboaren aitortzan aurrera egitea
- Etxebizitza hutsak mobilizatzeko programak (Bizigune eta ASAP)
- Birgaitzeko politikaren jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa, birgaitze integrala, irisgarritasuna eta energia-efizientzia sustatuz
- Alokairuaren eskaintza handitzen duen fiskalitatearen aldeko apustua

Planaren helburu nagusiak zenbakitan:

29.300

etxebizitza alokairu babestuko parke publikoan

% 40

alokairu-etxebizitzako parkearen kuota guztizko parke

4.000

etxebizitza berri alokairuan

12.000

familiak dute etxebizitza izateko eskubidea aitortuta

28.000

familiak jasotzen dute Etxebizitza Prestazio Osagarria edo Etxebizitza Prestazio Ekonomikoa

4.500

pertsona Gaztelagun emantzipatzen laguntzeko programan

35.800

etxebizitza eraikinen birgaitze integraleko proiektuek eraginda

15.000

etxebizitzak jaso dituzte irisgarritasuna hobetzeko laguntzak

Planaren aurrekontu bateratua: 1.237,6 milioi euro, aurreko planean baino % 11 handiagoa.



XII. legealdian onartutako funtsezko araudia

BIZIGARRITASUN-DEKRETUA

2022ko ekainean, Gobernu Kontseiluak **80/2022 Dekretua**, ekainaren 28koa, onartu zuen, zeinak ezartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko **etxebizitzek eta zuzkidura-bizitokiak gutxieneko zer bizigarritasun-baldintza bete behar dituzten**, baita haiek barne hartzen dituzten eta nagusiki bizitegi-erabilera duten eraikinek bete beharrekoak ere, duinak, egokiak eta irisgarriak direla bermatzeko.

Era berean, arau honen xedea da zuzkidura-bizitokiak eta babes publikoko etxebizitzek bete behar dituzten diseinu-arauak zehaztea. Azken horien kasuan, babes publikoko kalifikazioaren ondoretarako soilik.

ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOAREN DEKRETUA

2023ko urrian **147/2023 Dekretua** onartu zen, zeinak arautzen baitu etxebizitza edo zuzkidura-bizitoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa; eskubide hori aitortuta dago **EAEko Etxebizitzaren 3/2015 Legean**.

Etxebizitza izateko eskubide subjektiboak alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzeko aukera bermatzen du, edo, bestela, hileko 300 euroko etxebizitzako prestazio ekonomikoa (EPE) eskuratzeko aukera, merkatu librean alokairuko errenta bat ordaintzen laguntzeko. Dekretuak Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa (EES) aitortzeko betekizunak, baldintzak eta prozedurak arautzen ditu.

ETXEBIZITZA HUTSEN DEKRETUA

Ekainaren 8ko 149/2021 Dekretuaren helburua zera da: **etxebizitza hutsen parkea mobilizatzea** eta etxebizitzaren **gizarte-funtzioa** ziurtatzea.

Dekretuak etxebizitza bat huts deklaratzeko prozedura ezartzen du, eta jasotzen du zer neurri hartuko diren, hemendik aurrera, etxebizitza horiek alokairu edo erosketarako mobilizatzeko; besteak beste, egoitza hutsetarako urteko kanona.



GEHIENeko PREZIOEN ETA ERRENTEN AGINDUA

Agindua, 2022ko ekainaren 30ekoa, babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokien kanona zehazteari buruzkoa. Arauak 2010etik indarrean dauden zenbatekoak eguneratu zituen; hori horrela, saltzeko babes ofizialeko etxebizitzaren eta etxebizitza tasatuen prezioak aldatzen ditu, benetako kostuetara egokitzeko, eta eutsi egiten die alokairuko babes ofizialeko etxebizitzetan eta zuzkidura-bizitokietan ordaindu beharreko gehieneko errentamenduei eta kanonei. Araudi berriak gehitzen du prezioak automatikoki eguneratuko direla, KPlaren arabera,

ALOKAIRU ESKURAGARRIAREN AGINDUA

2022ko urriaren 14ko Aginduak alokairuko espezialitate berri bat arautzen du, araubide orokorreko babes sozialeko etxebizitzaren eta araubide autonomikoko etxebizitza tasatuen alokairu-araubidearen barruan.

Programa berri honen bidez, titulartasun pribatuko lurzoruak mobilizatu nahi dira, diru-sarrera ertainak dituzten pertsonentzat edo bizikidetzak-unitateentzat erreserbatutako alokairu eskuragarria bidera daitezen; horrela, pertsona edo bizikidetzak-unitate horiek errentamendu-erregimeneko etxebizitza babestu bat ere eskura ahal dezaten, merkatu librekoan baino prezio txikiagoan.

ERAIKINAK ETA ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO AGINDUA

2021eko uztailaren 21eko Aginduak etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko laguntzak eguneratzen eta zabaltzen ditu, bizigarritasunari, irisgarritasunari eta energia-efizientziari dagokionez, eta adineko pertsonentzako eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonentzako laguntza-lerro berezi bat sortzen du. Halaber, 2022ko ekainaren 21eko Agindua ahalbidetu du energia-efizientzia sustatzeko birgaitzean sakontzea, Next Generation EU Funtsek finantzaturako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko 3, 4 eta 5 programen esparruan.





■ ■ ■ Estatuko Etxebizitza Legea: eragina Euskadin

Etxebizitza-merkatu tentsionatuko eremuak

2023ko maiatzean **Estatuko Etxebizitzarako Eskubidearen Aldeko 12/2023 Legea** onartzeak ahalbidetu du, besteak beste, esparru juridiko berri bat **tentsionatutzat jotako eremuetan prezioen kontrolak** aldi baterako ezartzeko, segurtasun juridikoa ematen duen tresna berri baten bitartez.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren bidez, **azterketa** bat egin da Estatuko Etxebizitzari buruzko Legeak ezarritako

baldintzak betetzen dituztelako eremu tentsionatutzat jo litezkeen eremuak identifikatzeko.

Legearen irizpideak betetzen dituzten eremuak **EAEko 43** udalerritan daude, tartean, hiru hiriburuetan. Udalek aztertu behar dute orain prozesua hasi nahi duten edo ez. 43 udalerrietatik, 2 Araban, 20 Bizkaian eta 21 Gipuzkoan daude.

Etxebizitza-merkatu tentsionatuko eremutzat jotzeko irizpideak:

1

Aurrekontu pertsonalean edo bizikidetz-unitatean, hipotekaren edo alokairuaren batez besteko kargak –gehi oinarritzko gastuek eta hornidurek– familien batez besteko diru-sarreraren edo errentaren ehuneko hogeita hamar gaingiditzea.

2

Etxebizitza erosteko edo alokatzeko prezioak kasuan kasuko autonomia-erkidegoko kontsumo-prezioen indizearen hazkunde metatuaren ehunekoa baino gutxienez hiru puntu handiagoa izatea, etxebizitza-merkatu tentsionatuko eremu deklaratu aurreko bost urteetan.

Estatuko lege-testuaren garapenari babesa eman dion beste ekimenetako bat **jarduera-protokolo** bat egitea izan da, udalek orientabideak izan ditzaten udalerrri bakoitzeko eremu tentsionatuak ezartzeko orduan.






Estatuko Etxebizitza Legea: eragina Euskadin

Etxebizitza-merkatu tentsionatuko eremuak

Udalerrri batzuek prozesuak hasi dituzte dagoeneko etxebizitza-merkatu tentsionatuko eremutat jo ditzaten.





Estatuko Etxebizitza Legea: eragina Euskadin

Etxebizitza-errentak handiekiko bitartekotza

Etxebizitzarako Eskubidearen Aldeko maiatzaren **24ko 12/2023 Legeak**, beste neurri batzuen artean, ezinbesteko betekizun bat sartzen du, zaugarritasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonak edo familia-unitateak ohiko etxebizitzatik botatzea ekar lezakeen demanda judizial bat jarri aurretik.

Eskakizun honek berrarekin dakar alderdiek **adiskidetze- edo bitartekotza-prozedura** bat bete behar dute auzibidera jo aurretik, baldin eta alderdi demandatua zaugarritasun ekonomikoko egoeran badago.

Bizilagun izeneko bitartekaritza- eta adiskidetze-zerbitzua arduratzen da prozesu horietaz, Etxebizitzako sailburuordearen **1/2024 Jarraibidean** jasotzen den bezala.

Sailburuordetzak aldi baterako indartu du Bizilagun zerbitzua, 4 aholkulari juridiko gehituta, edukitzaile handiek errentamenduekin lotutako maizter-botatzeagatik dituzten prozesu berriei erantzuteko

Gaur egun **269 espediente izapidetu dira:**

132 Bizkaian, **81** Araban eta **56** Gipuzkoan.

2024aren hasieran, **berritu egin da** Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak Eudel EAeko Udalen Elkartearekin eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin (BJKN) batera eginiko **lankidetze-hitzarmena**, zaugarritasun bereziko egoeran dauden pertsonen arreta emateko, errentak edo ohiko etxebizitzaren hipoteka ez ordaintzeagatik etxetik botaz gero.

Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du, eta **estatuko legeria berriak planteatzen dituen aldaketak jasotzen ditu**. Hitzarmenak argitzen du autonomia-erkidegoko administrazioak egingo dituela txostenak, zordunek eskatuta ez ezik, baita edukitzaile handiek bultzatutako botatze-kasuetan ere, eta lege honek ezartzen duen adiskidetze- edo bitartekaritza-zerbitzurako (Bizilagun) sarbidea emango duela.





04 ALOKAIRUA ARRAZOIZKO PREZIOAN SUSTATZEA







Alokairu sozialeko etxebizitzaren kopurua handitzearen aldeko apustu irmoa

EAEan alokairu eskuragarria sustatzea da Etxebizitzaren Gida Planaren zein Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren erronka handienetako bat. Azken horrek helburu gisa ezartzen du 2036. urtearen amaieran EAEko etxebizitza nagusien % 5 alokairu eskuragarriko babes publikoko etxebizitzak izatea, herritarren eskaera gero eta handiagoari erantzuteko.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea onartu zenetik, eta 2020tik jada, ekimen publikoko etxebizitza guztiak alokatzeko baino ez dira izan behar.

Visesa sozietate publikoa -Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzarekin batera- funtsezko tresna izan da azken urteotan etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak sustatzeko eta eraikitzeko. Eraikitako etxebizitza guztiak alokairu babesturako izan dira.

Legealdi osoan, alokairu-araubideko babes publikoko 2.844 etxebizitza hasi dira: alokairu sozialeko 2.654 etxebizitza (Visesak 1.866) eta 190 zuzkidura-bizitoki.



Zuzkidura-bizitokiak sustatzea



Alokairu Batzordea, aurreko legealdian sortua, bi hilean behin biltzen da sustapenen garapenaren jarraipena egiteko. Etxebizitza Sailburuordetzako bi zuzendaritzek eta Visesa eta Alokabide sozietate publikoek osatzen dute batzorde hori. Sailburuordea da Batzordeko burua, eta aukera ematen du jarduketak etengabe koordinatzeko, alokairuko parke publikoko eraikinak diseinatzeke eta gauzatzeko irizpideak bateratuta, ondoren hobeki kudeatzeko.

Alokairu eskuragarriko espezialitate berri bat

Hirugarrenek alokairu eskuragarriko etxebizitzak eraikitzea bultzatzea

Baliabide gutxien duen kolektiboari eman beharreko lehentasunezko arreta inola ere baztertu gabe, aukera berriak ere ireki behar dira alokairu eskuragarria behar duten gizarte-sektoreei erantzuteko. Programa Etxebiden erregistratutako alokairu-eskatzaileei zuzenduta dago, urtean 21.000 eta 39.000 euro arteko diru-sarrerak dituztenei.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren **2022ko urriaren 14ko Agindua**k alokairuko espezialitate berri bat arautzen du, araubide orokorreko babes sozialeko etxebizitzaren eta araubide autonomikoko etxebizitza tasatuen alokairu-araubidearen barruan.

Programa berriaren bidez, **titulartasun pribatuko lurzoruak mobilizatu** nahi dira, diru-sarrera ertainak dituzten pertsonentzat edo bizikidetzaren unitateentzat erreserbatutako alokairu eskuragarria bidera daitezen; horrela, pertsona edo bizikidetzaren unitate horiek errentamendu-erregimeneko etxebizitza babestu bat ere eskura dezakete, merkatu librekoan baino prezio txikiagoan.

Sustatzaile pribatuek hitzarmenak sinatu beharko dituzte Etxebizitza Sailarekin, laguntza publikoekin alokairurako sustapen bat eraiki dezaten diru-sarrera ertaineko kolektiboentzat. Etxebizitzak errentamendu eskuragarrian 20 edo 50 urtez gutxienez eskaintzeko sinatuko dira akordioak, eta, akordioetan aztertuko dute, orobat, ea eremuan behar adinako eskaerarik dagoen, eta jaso beharreko dirulaguntzak zehaztuko dira.

Enpresek 18.000 euro jasoko dituzte etxebizitza bakoitzeko, eta zenbatekoa 45.000 eurora arte igoko da alokairu eskuragarriko epea 50 urtetik gorakoa bada. Hasierako epea amaitu ondoren, gutxienez 10 urtez luzatzea erabakitzen badute, 12.000 euroko laguntza jasoko dute etxe bakoitzeko, eta 24.000 euro, berriz, 20 urtez luzatzen bada.

Etxebizitzak esleitzeko orduan eskatzaileak ez badago etxebizitza guztietarako, Alokabidek Bizigune programaren baldintzen eta kanonaren arabera alokatuko ditu etxebizitzak.

Alokairu eskuragarriak ez dakar berarekin lagapen-araubide espezifiko berri bat, baizik eta Etxebizitza Sailaren eta entitate sustatzaileen arteko hitzarmen batean jasotako araubide berezi bat.



Dagoeneko **779 etxebizitza** tarako laguntzak eman dira modalitate horretan: 522 Araban eta 257 Bizkaian. Gipuzkoan 76 etxebizitza daude azterketa aurreratuan.



■ Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa: EAEko etxebizitza-politikaren balio bereizgarriak

EAEko etxebizitza-politikek egoera zaurgarrienean dauden pertsona eta familiekiko duten kezka berezia islatzen da etxebizitza edo zuzkidura-bizitoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa aitortzean. Eskubide hori aitortzen du [Etxebizitzaren 3/2015 Legeak](#), eta arautu egin zen, ondoren, [147/2023 Dekretuaonartuta](#).

Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa honela gauzatzen da: lehenatasunez eskuratuz alokairu sozialeko etxebizitza bat edo hileko 300 euroko etxebizitzako prestazio ekonomikoa (EPE), merkatu librean alokairuko errenta bat ordaintzen laguntzeko.

XII. legegaldian, 2.641 familiari esleitu zaizkie alokairuko etxebizitzak, EESa zuzenean aplikatuta. XII. legegaldian, halaber, 9.440 laguntza eman dira EESari lotuta; 21,9 milioi euro guztira. Gainera, 160.198 laguntza eman dira Etxebizitzako Prestazio Osagarriaren (EPO) esparruan; 341,2 milioi euro guztira.

24ko martxoan

8.469

familiak dute EESa aitortuta

29.271

EPO laguntzen 29.271 hartzaile

2.402

EPE laguntzen 2.402 hartzaile



2024ko apiriletik, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen **etxebizitza-prestazio guztiak Etxebizitza Sailaren babespean** eta Eskubide Subjektiboari lotuta daude (ordura arte Etxebizitzako Prestazio Osagarria DSBEari lotuta zegoen).

Baldintza nagusiak:

- Gutxienez urtebete bizitzea EAEn
- Etxebiden gutxienez 3 urteko antzinasuna izatea
- Bizikidetzta-unitatearen (BU) urteko gehieneko dirusarrera gordinak:
 - 3 kide edo gehiagoko bizikidetzta-unitatea: 19.000 €
 - 2 kideko bizikidetzta-unitatea: 17.000 €
 - kide bateko bizikidetzta-unitatea: 13.000 €

	2020	2021	2022	2023	2024 Martxoan
EES LAGUNTZA KOP. (EPE)	1.108	1.573	1.675	2.682	2.402
LAGUNTZEN) ZENBATEKOA (EPE)	2.328.686	3.460.902	6.679.160	7.697.429	2.077.563
EPO € LAGUNTZEN ZENBATEKOA €	32.762	34.511	32.792	30.862	29.271
EPO LAGUNTZEN ZENBATEKOA €	76.433.954	22.747.349	77.655.533	22.747.349	22.747.349



Bizigune: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Programaren zutabeetako bat

Alokabide Sozietate Publikoak, Bizigune programaren bidez, etxebizitzak sartzeko dituzten alokairu babesteko merkaturak, erabilera soziala eman dakien. Programa etengabe hazi da abian jarri zenetik, eta hazkunde handia izan du azken urteotan.

Programan 6.451 etxebizitza zeuden 2020an, eta 2023ko abenduaren 31n 7.376 dira gaurgero. Maizterrek ordaindutako

batez besteko errenta hileko 254 eurokoa da, eta etxebizitzak programari lagatzen dizkioten jabeek, berriz, hileko 675 euro jasotzen dituzte gehienez.

Nabarmentzekoa da udalekin lankidetzaz hitzarmen gehiago egin direla etxebizitza hutsen mobilizazioa bultzatzeko, Bizigune eta ASAP programen bidez. Guztira 46 akordio egin dira udalekin 2023ko abenduaren 31rako.



Etxebizitza huts baten jabeak etxebizitza hori Alokabideren esku jartzen du gozamen-kontratu baten bidez, ezarritako berme batzuen truke. Era berean, Alokabidek etxebizitza hori esleitzen dio Etxebide Erregistroan etxebizitza babestuen eskatzaile gisa inskribatuta dagoen pertsona bati. Maizterrek bere diru-sarreraren arabera alokairua ordaintzen du.

“Etxebizitza bat hutsik baduzu, Bizigune da zure programa”

Jabeen gozamenaren gehieneko zenbatekoa

675
euro/hil

Maizterren errentaren batez besteko zenbatekoa

254
euro/hil

Programarekiko interesaren eta konfiantzaren adierazgarria da 2023an kontratua amaitzen zitzaizen etxebizitzaren **jabeen % 89,6k 6** urte gehiagorako **berritu izana**.

Gainera, bai maizterrek bai jabeak oso pozik daude programarekin.



Gaztelagun: gazteria, lehenetasunezko kolektiboa

Eusko Jaurlaritzaren lehenetasunezko helburua da gazteen emantzipazioa sustatzea eta, horrekin batera, bizi-proiektu berriak gara ditzaten.

Gaztelagunek helburu horri laguntzen dio **alokairua ordaintzeko zuzeneko laguntza emanez, 18 eta 35 urte bitarteko gazteen** emantzipazioa laguntzeko. Programa hori 2019an abiarazi zuen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak.

2022ko apirilaren 26ko Agindua onartuta, Gaztelagun sendotu egin da, programa iraunkor eta estruktural bilakatuta, EAEko gazteek etxebizitza eskuratzeko laguntza indartu beharra baitzegoen.

Programaren zifrek programaren arrakastaren berri ematen dute, eta jarraitzen du helburuak betetzen. 2023ko itxieran, **6.346 espediente ari dira laguntza jasotzen**, hau da, 2022an baino % 63 eskaera aktibo gehiago. Espediente kopuru horretatik **7.526 onuradun** izan dira.

Gaztelagun laguntzen kontzeptuan guztira ordaindutako zenbatekoa 18,3 milioi eurokoa izan da 2023an. 2020tik 2024ra bitartean 40 milioi euroko laguntzak izan dira



Programa abian jarri zenetik, Gaztelagun programaren **9.943 onuradun** izan dira.



Betekizunak

- 18 eta 35 urte bitartekoa izatea
- EAEn 6 hilabetez jarraian bizitzea
- Ez izatea etxebizitzarik jabetzan
- Errentamendu-kontratu baten titularra
- Diru-sarrerak:
 - Banakako eskaera: 3.000 € - 26.725 €
 - Familia-unitatea: 3.000 € - 32.724 €

Gaztelagun: gazteria, lehentasunezko kolektiboa



Laguntzak

- EAEko etxebizitza libre baten alokairu-errentaren ehuneko bat hilero ordaintzea
- Gehieneko zenbatekoa: 300 € hilean (ordaindutako alokairuaren % 60 gehienez)
- Hileko errentaren mugak
 - 800 € Bilbon, Donostian eta Gasteizen
 - 750 €, Bilboko eta Donostiako metropolialdeetan eta 10.000 biztanletik gorako udalerrietan
 - 675 € ro gainerako udalerrietan

Gaztelagun bateragarria da Eusko Jaurlaritzaren “Emantzipa” emantzipaziorako laguntza-programarekin.





■ Ondare publikoaren stocka ziurtatzeko lurzoruak lortzea eta kudeatzea

Etxebizitza babesturako lurzoria eskuratzea Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzaren eta Visesaren arteko ekintza koordinatua da.

Azken bi legealdietan **Lurzoru Batzorde** bat eratu da; batzordea bi hilean behin biltzen da jarduketak garatuko diren hirigintza-eremuen garapenaren jarraipena egiteko.

Sailburuordetzako bi zuzendaritzek eta Visesa sozietate publikoak osatzen dute batzordea, eta sailburuordea da haren burua. Hirigintza-jarduketak etengabe koordinatzeko aukera ematen du.




Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialaren lehentasunezko estrategietako bat da etxebizitza babestura bideratutako lurzoru publikoaren erreserba estrategikoa sortzeko beharra, alokairu eskuragarriko etxebizitzaren eskaintza publikoa handitzeko. Itun Sozialaren helburua zera da: **lurzorua gehitzea Itunaren indarraldian (2022-2036) 18.000 etxebizitza eraikitzeko.**



Bestalde, **2021-2023** aldirako **Etxebizitzaren Gida Planak** helburu gisa zera ezartzen zuen: lurzoria eskuratzea 3.300 etxebizitza eraikitzeko (Etxebizitza Zuzendaritzaren 2.400 eta Visesaren 900).

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak 19,9 milioi euro gastatu ditu, 2020-2023 aldian, lurzoria erosteko, eta 17,9 milioi euro inbertitu ditu urbanizazioetan.



Legealdi honetan, **2.346** etxebizitza eraikitzeko lurzoria eskuratu da: Sailak 1.981 eta

Lurzoru-poltsan **2.742** etxebizitza daude: Sailaren 2.236 eta Visesaren 506



Alokabide: Etxebizitzaren eginkizun soziala alokairu

Alokabide Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoa da, etxebizitzaren eginkizun soziala alokairu-politikaren bidez garatzeko.


Alokabidek, etxebizitza propioen eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren parke publikoa kudeatzeaz gain, Bizigune eta ASAP programak eta udalek lagatuko etxebizitzak ere kudeatzen ditu.

Nabarmentzekoa da legealdi honetan 55 milioi euroko finantza-zorra amortizatu dela, eta sozietate publikoa saneatuta utzi dela.

Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legea onartu zenetik, ekimen publikoko etxebizitza guztiak alokairu sozialerako izan behar dira. Visesak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak eraikitako etxebizitzak Alokabidek eskuratzen ditu, alokairu-araubidean esleitzeko.



2023an, Alokabidek kudeatzen duen alokairu babestura bideratutako etxebizitzaren parkeak hazkunde handia izan du; hori horrela, **16.200 etxebizitzatik gorakoa** da alokairu babestuaren eskaintza.







Alokabideren arreta etxebizitza-premia bereziei

Familiei laguntza energetikoa emateko e-lagun proiektua 2021ean amaitu zen, eta 1.834 familiari lagundu zien. 2022ko udazkenean eta 2023ko neguan, guztira 1,5 milioi euro eman zituen berokuntza zentraleko sustapenetan zeuden komunitate eta bizilagunek gas-horniduren zenbateko handiei aurre egin ahal izateko, energia-krisiaren ondorioz igoerak izan baitziren. Laguntza 5.460 familiak eta 105 sustapenek jaso zuten.

5.460 familia onuradun
gas-horniduren kostu handiei
aurre egiteko

Era berean, Alokabidek behar hauei erantzun die legealdi honetan:





05 ERAIKINEN ETA ETXEBIZITZEN PARKEA BIRGAITZEKO ESTRATEGIA





■ Etxebizitzen eta eraikinen birgaitzea bultzatzea: apustu estrategikoa

XII. legealdian ikuspegi integralarekin bultzatu da birgaitze-jarduera.


2021eko uztailean **Laguntzen Agindu** berri bat onartu zen, orain arte zeuden bi programak bateratu eta sinplifikatzeko. Agindu berriak **hiru laguntza-ildo arautzen** ditu:

- 1 **1. lerroa:** partikularren obretarako finantza-neurriak
- 2 **2. lerroa:** erkidegoen obretarako finantza-neurriak
- 3 **3. lerroa:** birgaitze integral eta efizienterako erkidegoen obretarako finantza-neurriak



Birgaitzeko laguntzei esker, 49.478 etxebizitzaren eraikuntza egokitu da, 24.603 etxebizitzaren irisgarritasuna hobetu da, eta 6.901 etxebizitzaren energia-efizientzia hobetu da. Gainera, 1.085 etxebizitzari laguntzak eman zaizkie birgaitze integrala egiteko.

Birgaitzeko laguntzak (milioi euro)



- Eraikuntza-jarduera
49.478 etxebizitza
- Irisgarritasuna hobetzea
24.603 etxebizitza
- Energia-efizientzia
6.901 etxebizitza
- Birgaitze integrala
24.603 etxebizitza



Legealdi honetan, EAEko eraikuntzaren politikaren osagai Jaurilaritzako Etxebizitza emandako laguntzek eragin ekonomiko handia izan dute sektorean, eta indartu egin dituzte, gainera, berrikuntza, kualifikazio handiko lanpostuen sorrera, industrializazioa eta jasangarritasuna.



lehen aldiz hartu da sektorea EAEko etxebizitza-estrategikotzat. Eusko Sailburuordetzak birgaitzeko

Eraikinen birgaitze energetikorako Next Generation EU funtsak gauzatzea: EAEk helburuak bete ditu

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzari esleitutako Suspertze eta Erresilientzia Esparruaren Europako Funtsak aukera aparta izan dira EAEko etxebizitza-parkearen energia-efizientzia hobetzeko, Europako parkerik zaharrenetakoa baita.

2022ko ekainaren 21ean **Agindu** bat onartu zen, zeinaren bidez, eraikinen eta etxebizitzaren energia-efizientzia sustatzea xede duen birgaitzeetarako laguntza-programen oinarriak zehaztu eta deialdi publikoa arautzen baita (programa horiek **urriaren Seko 853/2021 Errege Dekretuan** jasota daude, zeinak arautzen baititu Europar Batasunak finantzatutako Next generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko bizitegien birgaitzearen eta etxebizitza sozialen arloko 3., 4. eta 5. programak).

EAEk helburuak bete ditu, eta esleitu egin dira dagoeneko transferitutako funts guztiak. 3., 4. eta 5. programetara bideratutako aurrekontua **165,3 milioi eurokoa izan da, eta 15.546 etxebizitzaren energia-birgaikuntzan lagundu du.**

3,4 eta 5 programak BHS sozietateen eta Visasaren Lankidetzarekin kudeatu eta garatu dira.

Eusko Jaurlaritzak funtsak ere gauzatu ditu **6. programan, hau da, energetikoki eraginkorrak diren eraikinetan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzeko laguntzen programan.**

Visesak oso-osorik kudeatu eta garatu du programa hori.

Estatuak Eusko Jaurlaritzari transferitutako 6. programaren aurrekontua **48,6 milioi eurokoa** izan da, eta, horri esker, alokairu eskuragarriko **1.140 etxebizitza eraiki dira.**



165,3 milioi eurokoa izan da

15.546
etxebizitzaren
energia-birgaikuntzan
lagundu du.




■ Euskoregite: plataforma honek laguntzen du EITen erregistroa kudeatzen eta emaitzak aztertzen

2020ko ekainetik, Euskoregite da EAEko Eraikinen Ikuskapen Teknikoak erregistratzeko Interneteko plataforma berria. Eusko Jaurlaritzak tresna hori ezarri du eraikinen jabeek EITa egiteko betebeharra errazago bete dezaten, udalek EITa errazago kudea eta kontrola dezaten.

Eraikinek 50 urte edo gehiago badituzte, EIT bat eduki behar dute nahitaez. Baita birgaitzeko laguntzak eskatzen dituztenek ere. Eraikinen jabeek dute EITa egiteko eta udalean aurkezteko ardura.

Udalek Euskoregite tresnan argitaratzen dute informazioa.



Argitaratutako 55.935 EITetatik, % 36k ekarri dute eraikinean obrak (1 eta 3 arteko mailak) egiteko beharra, eta % 64k mantentze-lanak egin behar dituzte (4. eta 5. mailak).


Ezarritako Big Data tresnari esker dugu informazio hori. Tresnak jada egindako eta Euskoregite plataforman erregistratutako EITen informazioa aztertzen du, EITen etorkizuneko plangintzarekin eta datu demografikoekin batera. Azterketa horiei esker,

aurea hartu ahal izan zaio EAEn EITen bolumen handia egiteak duen inpaktuari.

Tresna horrek aukera ematen du datu-bolumen ikaragarria denbora nahiko laburrean interpretatzeko, portaerak ulertzeko eta joerak aurreikusteko, benetako patroieta oinarrituta; horrela, erabaki zehatzagoak eta egokiagoak har daitezke, eta erakundearen estrategiei balioa ematen zaie.

Eusko Jaurlaritzak txostenak argitaratzen ditu hiru hilean behin, eta txostenok eginiko EITei zein haien emaitzei buruzko informazio baliotsua ematen dute. 2024ko martxoan, EAEko 85.479 eraikin behartuta daude EITa egitera. Euskoregite plataforman 55.935 EIT argitaratu dira, eta horietatik 46.309 antzinasunagatik egin dituzte; alegia, EITa nahitaez egin behar duten eraikinen % 54,2.

Egindako EITen emaitzak





06 HERRITARRENTZAKO ZERBITZU PUBLIKOA





ETXEBIDE: Erreferentziako zerbitzu publikoa etxebizitza behar duten herritarrentzat..... arrazoizko prezioetan

Etxebidek EAEko **babes publikoko etxebizitzaren eskaria** jasotzen du, eta bere gain hartzen du, halaber, babes publikoko etxebizitzak (bai Eusko Jaurlaritzaren sustapenekoak, bai udal batzuenak, haiekin lankidetzan) **esleitzearen kudeaketa**. Gainera, informazio erabilgarria eskaintzen du, eta herritarren zalantzak argitzen ditu.

Etxebizitza **babestua** eskatzen duten 94.748 bizikidetzaren unitate daude guztira, eta horietatik % 77k alokairu-araubideko etxebizitza eskatzen dute. Legegintzaldi honetan, etxebizitza esleitu dira.

Etxebidaren **webguneak**, batez beste, 1,6 milioi bisita jasotzen ditu hiru hilean, eta, gutxi gorabehera, 230.000 kontsultari erantzuten diete hiruhileko bakoitzean.

Babes publikoko etxebizitzaren eskaria kudeatzea



Babes publikoko etxebizitzaren esleipena



Herritarren kontsultei Arreta ematea



Sustapen guztietan kupoak gordetzen dira kolektibo zaugarrienen beharrei erantzuteko:

- Ezintasun fisikoa duten pertsonak
- 36 urtetik beherako gazteak
- Etxebizitzarako eskubide subjektiboen titularrak
- **Etxebizitza-premia berezia** duten pertsonak. Familia-unitateak barne hartzen ditu titularretako bat honako kolektibo hauetakoa bada:

- Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonak eta gaixotasun mentala duten pertsonak
- Guraso bakarreko familiak
- Genero-indarkeriaren biktimak
- Legez dibortziatutako edo banandutako pertsonak

- Gerora sortutako ezgaitasunagatik ohiko etxebizitzaren jabetza galdu duten pertsonak
- 70 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea



	2020	2021	2022	2023	2024 1. Hiru hilekoan
HERRITARRENTZAKO ARRETA	229.044	229.007	229.198	226.387	75.510
ETXEBIDEREN WEBAREN BISITAK	1.617.354	1.762.287	1.617.706	1.481.571	345.724



Bizilagun: Etxebizitza Sailburuordetzaren bitartekaritza- eta adiskidetze-zerbitzua (publikoa, unibertsala eta doakoa)

Bizilagun bitartekaritza- eta adiskidetze-zerbitzua da HELaren (Hiri Errentamenduen Legea) eta JHLaren (Jabetza Horizontalaren Legea) arloan. Ekainaren 18ko 3/2015 Legea indarrean jarri zenetik, nahitaezkoa da hirigintzako errentamendu-kontratuak erregistratzea eta haien ondoriozko fidantzak jartzea. Bizilagun izeneko zerbitzuak kudeatzen ditu kontratu horiek.

Bizilagun arduratzen da bitartekaritza- eta adiskidetze-prozesuez; hain zuzen ere, Etxebizitzarako Eskubidearen Aldeko 12/2023 Legeak, maiatzaren 24koak, gehitutako baldintza berriak aplikatzearen ondoriozko. Eta halaxe jasotzen du Etxebizitza sailburuordearen 1/2024 Jarraibideak.

Eskakizun honek berarekin dakar alderiek adiskidetze- edo bitartekotza-prozedura bat behar dute auzibidera jo aurretik, baldin eta alderdi demandatua zaurgarritasun ekonomikoko egoeran badago. Sailburuordetzak aldi baterako indartu du Bizilagunen zerbitzua, 4 aholkulari juridiko gehituta, edukitzaile handiek errentamenduekin lotutako maizter-botatzeagatik dituzten prozesu berriei erantzuteko.

BIZILAGUNEN XEDEA:

Jabe, bizilagun, errentatzaile edo maizter moduan dauden eskubideak eta betebeharrak **jakinaraztea**

Etxebizitza baten jabeek zein maizterrek beren eskubide edo betebeharrei buruz dituzten zalantzak argitzeko **orientazioa** ematea.

Bitartekari-lana egitea erkidego bateko bizilagunen artean edo jabeen eta maizterren artean sortzen diren gatazkak ebazteko, haien artean zuzenean konpondu ezin dituztenean.

Bizilagunen webguneak, batez beste, **169.919** bisita jasotzen ditu urtean, eta, gutxi gorabehera, **19.000** kontsultari erantzuten diete urtero.

	2020	2021	2022	2023	MARTXOA 2024
WEBAREN URTEKO BISITAK	174.850	192.944	176.764	135.116	51.181
ERANTZUNDAKO KONSULTAK	21.572	20.608	16.537	17.860	4.939

Gaur egun etxebizitzak alokatzeko **163.183** kontratu erregistratu dira, eta, guztira, **195.733.431** euroko fidantzak jarri dira.

	2020	2021	2022	2023	MARTXOA 2024
ERREGISTRATUTAKO ALOKAIRU-KONTRATUAK	17.372	43.418	37.237	34.824	8.301
JARRITAKO FIDANTZAK	16.174	38.273	33.105	32.797	8.004




Babes publikoko etxebizitzaren parkearen kontrola

Ikuskatutako etxebizitzak


Etxebizitza Sailak babes publikoko etxebizitzaren parkearen ikuskapenak egiten ditu aldian-aldian, **etxebizitzaren eginkizun soziala bermatzeko**

2020tik 2024ra **32.424 etxebizitza** ikuskatu dira guztira, eta **2.291 irregulartasun** detektatu dira guztira. **314** kasutan zigorra jarri da amaieran.

Ikuskatutako etxebizitzaren kopurua



Zehapena duten




Eroslehentasuna eta atzera eskuratzea

Eusko Jaurlaritzak etxebizitza babestu bat lehentasunez erosteko eskubidea du lehen eskualdatzean eta hurrengoetan, saltzaileak eta erosleak adostutako prezioa ordainduta.

24 eroslehentasun egin dira 2020tik 2024ra bitartean. Eskubide hori BOEko partikularren arteko transmisioan anomalia bat dagoen kasuetan baliatzen da.

Politika horri esker, etxebizitza babestuen bigarren eskuko merkatu gardena dago, arrazoizko prezioan, etxebizitza-premia duten pertsonentzat.

Eroslehentasunak





Herritarren parte-hartze prozesuak

Etxebizitza Sailak kanal ireki bat du herritarrekin eta sektoreko profesionalekin, Etxebizitzaren bidez.

Etxebizitza plataforma bat da, etxebizitzaren arloko alderdi berritzaileen berri emateko eta sareko elkarreraginetik sortzen diren proposamen, ideia edo eztabaida guztiak jasotzeko.

Legealdi honetan **parte hartzeko 4 prozesu** antolatu dira; 2.850 pertsonak eta 178 erakundek parte hartu dute.



2022-2036 aldirako Etxebizitzaren Aldeko Itun Soziala

EAEen etxebizitzaren inguruan epe luzera 15 urtera– jarduteko lehentasunezko helburuak eta ildoak adosteko prozesua



2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana

Parte hartzeko prozesua, EAEko etxebizitza-politikak bideratzeko dokumentu estrategiko bat elkarlanean ontzeko



Etxebizitzaren Euskal Behatokia

Etxebizitzaren Euskal Behatokia berrikusi eta hobetzea



Erreaktibazioa eta lankidetzak publikoak eta pribatuak etxebizitzan

Parte hartzeko prozesua sektoreko agenteekin



07 BERRIKUNTZA ETXEBIZITZAN



Etxebizitzaren Euskal Behatokia

Etxebizitza Sailburuordetzak etxebizitzaren arloko hausnarketa eta lankidetzarako gune bat jartzen du herritarren eta sektoreko profesionalen eskura. Alegia, Etxebizitzaren Euskal Behatokia. Tresna honek informazio eta ezagutzarako sarbidea eta transferentzia bideratzen ditu etxebizitzaren esparruan, **hiru ikuspegi**ekin: esparru publikoan erabakiak hartzeko prozesuan laguntzeko; sektoreko eragileen eta profesionalen eskaria betetzeko; eta etxebizitzaren errealitatea ikuspuntu objektibo eta instituzionaletik azaltzeko erreferentea izateko.

Etxebizitzaren errealitateari buruzko informazioa aztertzea eta zabaltzea

Etxebizitza Sailburuordetzak sortzen duen informazio estatistiko guztia jasotzen du Behatokiak, baita sektoreari buruz garatzen dituen azterlan eta txosten guztiak ere. Gainera, azterketa partekaturako

gunea da, albiste garrantzitsuenak biltzeko gunea, datu historikoak, gaur egungo egoerak eta abar biltzekoa, etxebizitza-errealitatearen eta haren inguruan sortutakoaren isla objektibo bihurtzeko helburuarekin.

Behatokiak, besteak beste, aldizkako azterlan hauek egiten ditu:

- Saileko etxebizitza-politiken ebaluazioa
- Etxebizitzako zerbitzu eta prozesu eragileen ebaluazioa.
- Higiezin-merkatuaren laburpena
- EAEko etxebizitza babestuen eskariari buruzko txostena, udalerrien arabera

Gainera, 2024an, Behatokiak interes handiko txostenak egin ditu udalentsat, **etxebizitza-merkatu tentsionatuko eremu**en izendapenari dagokionez. Eremu tentsionatuei buruzko txostena, Estatuko Etxebizitzari buruzko Legearen 18. artikuluan ezarritakoa betetzeko protokoloa, eta diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko ereduak dira.


Berrikuntza estatistikaren eta dokumentazioaren arloan

Behatokiak Etxebizitza Sailburuordetzaren estatistika ofizial guztia jasotzen du. Gainera, etengabe berritzen ari da, eta legealdi honetan hiru estatistika berri sortu ditu:

- **Alokairu Merkatuaren Estatistika (AME)**, hiruhilekoa; 2020an argitaratu zen lehen aldiz, 2016tik eskuragarri zeuden datuekin.
- **Higiezin salerosketaren estatistika (HSEE)**, hiruhilekoa. 2022ko martxotik, higiezin salerosketari buruzko datuak argitaratzen dira, Erregistratzaileen Elkargoko salerosketen transmisioen erregistrotik abiatuta (Higiezin Eskaintzari buruzko Inkesta ordezkatzan du).
- **Alokairu-araubideko familiei egindako inkesta (ALOKAIN)**, bi urterik behin. Lehen inkesta 2022ko 4. hiruhilekoan egin zen, AMEren eragiketaren barruan. Euskal Estatistika

Plan berriarekin eragiketa independentea izango da, eta 2024ko irailan egingo da.

Era berean, informazio fiskalean oinarritutako estatistika berri bat prestatzen ari dira. Eustaten titulartasuneko estatistika izango da, eta sailaren parte-hartzea izango du: **«Familiek etxebizitza ordaintzeko egindako finantza-ahaleginari buruzko inkesta»**






Etxebizitzaren Euskal Behatokia

Antolatutako jardunaldiak

Legealdian zehar, Etxebizitza Sailburuordetzak jardunaldi ugari antolatu ditu:

- **Etxebizitza Politikei buruzko Nazioarteko Kongresua (IHP), 2024ko urtarrilean.**



- **Internacional Social Housing Festival (ISHF), 2023ko ekainean.**
- **UPV/EHUko udako ikastaroa: Alokabizi: alokairu sozialeko etxebizitza babestuen eredu berri baterantz, zerbitzu publiko gisa, 2023ko udan.**

- **EAEko eraikinak eta etxebizitzak birgaitzearen aldeko apustua, 2022ko uztailan.**

- **Birgaitze, irisgarritasun eta energia-efizientziako jarduketa babesgarrietarako finantza-neurri berriei buruzko prestakuntza-jardunaldia, 2021eko urrian.**

- **Alokabizi jardunaldia: alokairu sozialeko etxebizitza babestuen eredu berri baterantz, zerbitzu publiko gisa (beste autonomia-erkidego batzuetako eta Ministerioko etxebizitza-zuzendari aurkeztea), 2023ko otsailan.**

- **Jenderik gabeko etxebizitzetara eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurri buruzko 149/2021 Dekretuari buruzko prestakuntza-ekintza, 2022ko martxoan.**



Jardunaldietan hizlari gisa parte hartzea

Gainera, Etxebizitzaren Behatokiko kideek zenbait jardunalditan parte hartu dute:

- EAEko bizitegi-bazterketari buruzko VI. jardunaldiak, 2023ko urrian.
- Gizartea eta Etxebizitza: etxebizitza kolaboratiboa izeneko jardunaldiak, 2023ko apirilean.
- Sevillako Etxebizitza Sozialari buruzko V. Jardunaldiak, Emvisesak CaixaForum antolatuak, 2023ko otsailan.
- Etxebizitzaren arloko politika publiko aitzindariak.
- Energia-trantsizioa tokiko munduan, 2021eko apirilean.
- Etxebizitzaren Euskal Behatokiak Kantabriako Gobernuaren Etxebizitza Legearen zikloan parte hartzea, 2021eko urtarrilean.



EAE erabat irisgarri baterantz

IRISGARRITASUN UNIBERTSALAREN ARLOKO LEHEN EKINTZA PLANA

Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 2an onartu zuen EAEko Irisgarritasun Unibertsalaren arloko Lehen Ekintza Plana (2022-2025). Irisgarritasun Unibertsalaren Euskal Estrategia izan da Plan hau formulatzeko oinarria. Bi ekimen horiek ISEK - Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren mende daude. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikitako organo aholku-emailea.

Plan de Acción de la Estrategia de Accesibilidad Universal de Euskadi



Ekintza Plana Euskadiko Irisgarritasun Unibertsalaren Estrategiaren tresna da; ekintza positiboko neurriak biltzen ditu, pertsona guztientzako aukera- eta tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren oinarrizko

printzipioak bermatzeko, ingurune sozial eta komunitarioan garapen osoa, autonomia eta askea lor dezaten, eskubide guztiak benetan gauzatuz.

Gaur egun, «**Bizitegi-irisgarritasun Unibertsalaren ziurtagiria**» sortzeko fase aurreratuan dago.

Irisgarritasun Unibertsalaren Estrategiaren lehen Ekintza Planaren ezarpena ebaluatzeko txostena egiten da urtero. Dokumentuak barne hartzen ditu Planean jasotako ekintzen aurrerapen- eta inplementazio-maila, inplikaturako erakundeek garatutako jarduera, gomendioak eta hurrengo urratsak.



Planaren esparruan, administrazio publikoari zuzendutako lan-saioak eta prestakuntza-ekintzak egiten ari dira, bai eta indarrean dagoen araudia aplikatzen laguntzeko gidak ere. Gainera, **EAEko Irisgarritasunaren Behatokia** sortu da.

EAEKO IRISGARRITASUNAREN BEHATOKIA

2024ko otsailean, EAEko **Irisgarritasun Behatokiaren webgunea** ezagutarazi zen. Tresna honek EAEko irisgarritasunari buruzko informazioa zentralizatzen du, EAEko Irisgarritasun Unibertsalaren Estrategiak proposatzen zuen bezala. Gainera, webguneko «Kontaktua» atalean aukera dago irisgarritasunaren

gaineko informazioari eta orientazioari zein gorabeheri, beharrei eta gabeziei buruzko kontsultak bidaltzeko.



■ Arkitektura-kultura sustatzea

Euskadiko Arkitektura Institutua

Sailak **Euskadiko Arkitektura Institutua** (EAI) sortu zuen 2019an, arkitektura herritarrengana hurbiltzeko, eta arkitekturari, hirigintzari, paisaiari eta diseinuari buruzko pentsamendua eta eztabaida sustatzeko.

Institutu hau sortu zen **arkitekturaren arloko erreferentzia-gune** bihurtzeko, arkitektura herritarrengana hurbiltzeko, gizartean arkitektura-zaletasuna sortzeko, zentzu zabalean eta kultura- eta herritar-gozamenerako, bai eta euskal arkitektura garaikidea nazioartean sustatzeko ere.

Institutuak Donostiako Santa Teresa komentuan du egoitza, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz.

MUGAK Arkitektura Bienala

Institutuan **Euskadiko Nazioarteko Arkitektura Bienalaren** bulego iraunkorra dago, eta bertan dago, halaber, haren egoitza nagusia. Bienalaren lehen edizioa 2017an izan zen, eta azkenekoa, laugarrena, 2023an.



Bi urtean behin, hiru hilabete zehar, ehun bat jarduera eta erakusketa antolatzen dira, zeinetan, Donostian –egoitza nagusian–, Gasteizen eta Bilbon, arkitekturaren zein kulturaren profesionalak eta, oro har, herritarrak biltzen diren.

Ekitaldi hau, Arku Atlantikoaren hitzordu arkitektoniko nagusietako bat, finkatu egin da arkitektura garaikidearen eta haren dimentsio sozial eta kulturalaren gaineko eztabaida eta hausnarketarako nazioarteko erreferente gisa.

Etxebizitza Kolektiboaren Europako Saria

Euskadiko Arkitektura Institutuak eta Bordeleko Arc en Rêve arkitektura-zentroak, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren

laguntzarekin, **etxebizitza kolektiboaren Europako saria** sortu dute. Sari honek bikaintasun arkitektonikoa eta haren eragin sozial positiboa aintzatesten ditu.

Gainera, Sailak dirulaguntza bat eman dio Peña Ganchegui Artxiboa Elkarteari, euskal arkitektura gaztearen **Peña Ganchegui sarirako**. 2017an sortu zuten saria 10 urtetik beherako esperientzia duten arkitekturako profesionalentzat; hain zuzen ere, titulua Euskal Autonomia Erkidegoan eskuratu eta jarduera bertan dutenentzat.





Eraikal programa: berrikuntza bizitegi-eraikuntzaren sektorean

Eraikal programa Euskadin bizitegi-eraikuntzaren berrikuntza bultzatzeko programa bat da, eta helburutzat du kudeaketa-sistemak sustatu eta ezartzea, baita eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea eta jasagarritasuna sustatzea ere.

Programak 5 laguntza-lerro ditu. 2022ko edizioan, programak, berrikuntza gisa, bizitegi-eraikuntzako **industrializazioa bideratutako V. Lerroa** irekita, bikoiztu egin zuen programaren aurrekontu-ahalmena: 0,5 M €-tik 1 M €-ra.

V. lerroak gehienez 150.000 euroko dirulaguntza ematen du proiektu bakoitzeko.



«Gizarte Laguntzako Etxebizitza Industrializatuaren Liburu Zuria» alokairuko etxebizitza publikoaren eraikuntza industrializaturako gida Visasaren proiektu bat da, Eraikal programaren V. lerroak diruz lagundutakoa.

Proiektua amaitutakoan, argitalpen bat edukiko dugu, eta alokairuko etxebizitza publikoaren eraikuntza industrializaturako gida gisa balio izango du.



Europar programa: hiri- eta arkitektura-berrikuntza

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzako Lurzorua Kudeatzeko Zerbitzuak lankidetzan kudeatzen du **Europar** plataformarekin; alegia, hiri- eta arkitektura-berrikuntzarako Europako plataformarekin.

Europar izeneko programa aldi-zkako ideia-lehiaketa bat da, eta ideia horiek gauzatu egiten dira ondoren; gai, araudi eta egutegi komuna dago antolatzen duten herrialde guztientzat. Arkitektoek kontinente osoan proposatutako lekuetan aurkez ditzakete proposamenak. Lehiaketaren helburu nagusia zera da: Europako profesionalen arteko ideia-trukea handitzea.

2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren 2.2 estrategiak («Eraikuntzan eta birgaitzean kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea») ekintza hau jasotzen du: «**Europar izeneko Arkitekturaren arloko Europako Berrikuntza Programaren jarduerarekin jarraitzea**».

Espanian, Europar programak etxebizitzari, arkitekturari eta hirigintzari buruzko eztabaida-foro bat izendatzen du, eta bertan biltzen dira gure hiriak garatzeko lanean parte hartu nahi duten Estatuko, autonomia-erdegoko eta tokiko pertsona, erakunde eta administrazio guztiak.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak parte-hartze egonkorra du

Europar Espainiako Batzorde Nazionalan, eta iraunkorra Europar Programako Batzorde Betearazlean.

Gaur egun, hiru sustapen egiten ari dira Europar programaren barruan.

Europar 15 (2019): 100 etxebizitza babestu Lasarte-Orian. Egoera: Egikaritze-proiektua.

Europar 16 (2021): 12 etxebizitza babestu Beizaman. Egoera: Oinarritzko proiektua abian.

Europar 17 (2023): Industria-eraikinetako 30-50 zuzkidura-bizitoki Eibarren. Txonta. Egoera: Aurretiko azterlanak abian.

Azken hiru deialdietan, Sailak proposatutako kokalekuak Europako arrakastatsuenak izan dira; haiek jaso dute hautagaitza edo proposamen gehien, eta haiei esker, **Eusko Jaurlaritza erreferentziako administrazioa da arkitektura- eta hiri-berrikuntzaren esparruan erreferentziako lehiaketa honetan.**



Etxebizitzako berrikuntza Euskadiko Zientzia eta Berrikuntzarako Planean

ZERO PLANA

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitek-tura Zuzendaritza, Alokabideren bidez, alokairuko parke publikoaren Energia Birgaitzeko eta Irisgarritasun erako Planaren buru da 2018tik, ZERO Planaren bitartez. Erronka bat da eraikin publikoetan energia-eta irisgarritasun-trantsizioari aurre egiteko, eta oinarrizko hiru zutabetan oinarritzen da:

- Zerbitzu integral aurreratua
- Etxe osasungarriak eta irisgarriak
- Parke hornitua eta eraginkorra

Zero Planaren plangintza bosturteka egiten da, 2020-2050 aldirako. Guztira 192 milioitik gorako inbertsioa aurreikusten da Plan osorako, eta **38,81 M €-koa 2020-2025 aldirako**.

ALOKABIZI

Alokabizi ekimenak osatzen du Zero Plana. Ekimena 2021ean sortu zen, eta zeroplus izena izan zuen hasieran. Alokabizik alokairu sozialeko etxebizitza babestuaren 2050erako horizontea zehazten du, bat etorritik Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearekin, Eusko Jaurlaritzaren ZTBP Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekin eta Garapen Iraunkorreko Helburuekin.

Alokabizik hiru ikuspegi ditu (3 ardatz):

- ingurumen-jasangarritasuna
- digitalizazioa
- gizarteratzea.

Elkarlaneko lan-prozesu bizia da: 29 erakundek eta 90 pertsonak baino gehiagok lagundu dute Alokabizi sortzen, 27 ikerketa-ildoren bidez. Programak eragin zuzena du 7.700 familiatan baino gehiagotan.

Oso tresna baliagarriak prestatu dira Alokabiderentzat; tresnok interesgarriak izan litezke alokairuko etxebizitza babestuen parkeak kudeatzen dituzten beste erakunde batzuentzat. **Alokabiziren webgunean** jaso dira egindako lanaren emaitzak.

Eragin zuzena
7.700
fami-liatan baino
gehiagotan



Hedatzea

2023ko otsailaren 15ean «Alokabizi: alokairu sozialeko etxebizitza babestuaren eredu berri baterantz, zerbitzu publiko gisa» jardunaldia egin zen, eta 100 pertsonak parte hartu zuten. Egun berean autonomia-erkidegoetako Etxebizitzako zuzendarien urteko bilera izan zen, eta haiek ere joan ziren aurkezpena.

2023ko abuztuaren 31tik irailaren 1era bitartean EHUren udako ikastaro bat egin zen, Donostian, Alokabiziren gainean.

Ikastaroan saiatu ziren alokairu sozialeko etxebizitza babestuen parkearen etorkizuneko ikuspegia ematen.

Webgunean:

- 11 tresna
- 13 gida
- 30 azalpen-bideo baino gehiago



08 GURE ZIFRAK





Legealdiaren funtsezko datuak

01

ERAIKUNTZA

Alokairu-araubideko babes publikoko **2.567** etxebizitza hasi dira

190 zuzkidura-bizitoki hasi dira

Sailak eta Visesak hasi dituzte alokairu-araubideko guztiak

Suelo captado para la edificación de **2.346** viviendas

ALOKAIRU PARKEA Next Generation EU funtsetako **48,6** milioi alokairu eskuragarriko **1.140** etxebizitza eraikituko

02

ALOKAIRU PARKEA

Alokabide kudeatutako alokairuko parke publikoko **16.237** etxebizitza

7.376 etxebizitza Bizigune Progaman kudeatuta

211 etxebizitza ASAP

03

ALOKAIRUA ORDAINTZEKO LAGUNTZAK

Etxebizitza Eskubide Subjektiboa (EES) aitortu zaie **8.469** familiari; haietatik 2,641i berehala esleitu zaie alokairuko etxebizitza soziala

2.402 familiak dute aitortua Etxebizitzarako Prestazio Ekono mikoa (EPE)

7.526 gaztek jaso dute Gaztelagun laguntza

29.271 pertsonak jasotezen dute Etxebizitzako Prestazio Osagarria (EPO), hileko batezbestekoan

Urtean **10.000** pertsonak baino gehiagok jasotzen dituzte GLLak alokairua ardaintzeko

04

ALOKAIRUA ORDAINTZEKO LAGUNTZAK

116,3 milioi euro eraikuntza egokitzeko eta irisgarritasuna eta inguratzailea hobetzeko 135.000 etxebizitzatan baino gehiagotan

18,9 milioi euro bloketan multzokatutako eraikinen birgaitze integralerako irisgarritasuna, segurtasuna eta energiaefizientzia: 1.085 etxebizitza onuradun

Next Generation EU funtsezko **165,3** milioi 15.546 etxebizitza energia-efizientziako irizpideekin eraberritzeko

55.935 ITE erregistratu dira Euskoregite plataforman

05

BESTE DATU BATZUK

etxebizitza babestua eskatzeko **94.748** espediente, %77 alokairu-araubidean

Biziklagunek urtean erantzundako **19.144** konsultari erantzun die urtean

Etxebizitza alokatzeko **83.882** kontratu erregistratu dira

Etxebizitza babestuen **32.424** ikuskapen egin dira

Etxebizitzaren Behatokiaren webgunean **192** txosten eta estatistika argitaratu dira




Etxebizitza Programak 2020-2023 aldian egindako gastu bateratua **1.221 milioi eurokoa** izan da. Zuzeneko inbertsioek guztizkoaren % 42,6 hartu dute; kapital-transferentziek eta -dirulaguntzek, % 18,2, eta gastu arruntak, % 39,2.

Nabarmentzekoak dira honako partida hauek: etxebizitzak eraikitzeko 247 milioi euroko partida, Bizigune programaren 148 milioi eurokoa, familiei dirulaguntzak edo subsidioak emateko 72 milioi eurokoa, eta Gaztelagun programaren 36 milioi euro ingurukoa.

2020-2023 aldian gauzatutako gastu finkatua

JARDUERA LERROA

ZUZENEKO INBERTSIOAK	Zenbatekoa (milioi euro)	Gastuen banaketa (%)
Jarduera lerroak		
Lurzorua erostea	19,88	1,6%
Urbanizazioa	17,85	1,5%
Etxebizitzak eraikitzea	247,01	20,2%
Gainerako inbertsioak (etxebizitzak eskuratzea)	235,38	19,3%
Zuzeneko Subtotala Inbertsioak	520,12	42,6%
KAPITAL-TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK		
Etxebizitzaren sustapenerako dirulaguntzak VISESA VISESA.	25,11	2,1%
Gainerako bazkideen akzioak eskuratzea	15,60	1,3%
Alokabideren Kapital-transferentziak inbertsioetarako	79,06	6,5%
Alokabideren kapital-ordainketak	22,73	1,9%
Visesa eta Alokabidere kapital-dirulaguntzak kentzea	-168,70	-13,8%
Dirulaguntzak eta subsidioak familiei	72,38	5,9%
Kalitate Programa – Eraikal	1,05	0,1%
Dirulaguntzak alokairuko sustapenei	13,24	1,1%
Irisgarritasuna	8,87	0,7%
Finantza-Inbertsioak eta epe luzeko kredituak	105,66	8,7%
Eroslehentasuna eta atzera eskuratzea	1,12	0,1%
Auzoak eraberritzea eta hiri-berroneratzea	18,86	1,5%
Finantza tresna	1,23	0,1%
Kapital-transferentzien eta-dirulaguntzen subtotala	222,41	18,2%
GASTU ARRUNTA		
Langileen gastuak	99,08	8,1%
Funtzionamendu-gastuak	151,83	12,4%
Finantza-gastuak	3,71	0,3%
Laborategia kudeatzeko dirulaguntza arruntak	2,75	0,2%
Dirulaguntza arruntak SESTAO BERRI 2010 SA	4,50	0,4%
Gainerako dirulaguntza arruntak	3,94	0,3%
EES prestazio ekonomikoak	17,93	1,5%
Gaztelagun Programa	35,75	2,9%
NZEB-ZTBP	3,31	0,3%
COVID-19aren Laguntzak eta kudeata	7,28	0,6%
Bizigune programa	293,65	24,0%
Biziguneko kontsolidazioa eta eroslehentasunak kentzea	-145,11	-11,9%
Gastu Arruntaren Subtotala	478,62	39,2%
GASTUA, GUZTIA	1.221,14	100,0%





2020
2024

EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA SAILBURUORDETZA

LEGEGINTZALDIKO MEMORIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACION
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES